



## URTEKO BIZIKIDETZA PLANA (UBP)

*“Gertatzen zaiguna kontrolatzean baino,  
 hori guztia probetxatzean datza bizitzaren artea”*

### ZER GATIK?


2006ko Maiatzaren 3an argitaratu zen **LEY ORGÁNICA DE EDUCACIÓN (LOE)** delakoak Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuari dagokionez, honako hau zehazten du: *“Esandako proiektuak, zeinak ikastetxeko **inguru soziala eta kulturala kontuan hartuko duena, ikaslegoaren aniztasuna lantzeko modua, tutoretza plana eta halaber BIZIKIDETZA PLANA jasoko ditu eta oinarritzko balore bezala diskriminazio eza eta hezkuntza inklusioa errespetatuko ditu, baita Lege honetan zein Uztailaren 3ko 8/1985 Hezkuntza Eskubidea Arautzeko Lege Organikoan jasotzen diren printzipio eta helburuak”***

Besteak beste ondoko printzipioak azaltzen ditu, **“gatazkak aurreikusteko eta berauen konponbide baketsua** hezkuntza, baita **pertsona, famili zein giza mailako bizitzaren eremu guztietan biolentzia eza ere**” eta **“eskubide zein aukeren berdintasunaren garapena eta gizon eta emakumeen arteko berdintasun eraginkorraren sustapena”** eta helburu bezala, besteak beste, **“tolerantzia eta askatasunean bizikidetzaren printzipio demokratikoen barruan, eta halaber gatazkei aurre hartzean eta konponbide baketsuan oinarriak dituen hezkuntza”** eta **“bakerako hezkuntza, giza eskubideen begirunea, elkarrekiko bizitza, giza kohesioa, herrien arteko lankidetzeta eta elkartasuna baita izaki bizidunetikiko eta ingurugiroarekiko begirunea sustatzen dituzten baloreen jabetzea ...”**

### ZERTAN DATZA PROIEKTUA?

**URTEKO BIZIKIDETZA PLANA (UBP)** hezkuntza-ekimena ikasleentzat, irakasleentzat, familientzat eta AZP-PASrentzat da. Hezkuntza komunitate osoak sortutako dokumentua izan behar da. Ikastetxean ditugun beste dokumentuak bezala (PEC, PCC...) UBP-k komunitate osoaren harremanak arautu behar ditu.

# FASEAK



Hasiera batean denbora nahiko dedikatu beharko diogu gai honi, ikastetxeko bizitzarako garrantzitsuak diren gaietan komunean hausnarketa egitea eskatzen duelako; hezkuntza komunitateko kolektibo bakoitzean sinismenak, beharrak eta iguripenak komunean jarritz.

## FASEEN GARAPENA

Azaroan, abenduan eta urtarrilean zehar irakasleek eta ikasleek SENTZIBILIZAZIO fasea garatu dugu ikastetxean. Fase honen emaitza materiala DBHko 1. mailatik 4. maila arteko geletako ikasleek egindako lanen erakusketa izan da (ikus dezakezue ikastetxeko sarreran).

Otsailean bigarren fasea landu dugu irakasleok eta uste dugu heldu dela zuek gurasook parte hartzeko garaia.

### Nola?

Gutunean ematen zaizue zuekin egingo ditugun bi bileren berri. Zuen etortzearen zain gaizkatzue zuekin konpartitu eta adostu nahi dugulako Koldo Mitxelena Institutuentzat ELKARBIZITZAREN DEFINIZIOA.. Guk nahi dugu definizio hau gure nortasun zeinua izatea.

Uste osoa daukagu esperientzia hau oso aberatsa eta interesgarria izan daitekela, eskola komunitatearentzat nahiz parte hartuko dugun guztiontzat.

## INFORMAZIO GEHIAGO

### Blogak:

- o [www.koldomitxelena.net](http://www.koldomitxelena.net) > KMblog > BIZIKIDETZA
- o [www.bizikidetzta-convivencia.blogspot.com](http://www.bizikidetzta-convivencia.blogspot.com)